

BALDINTZA OROKORRAK

I. KONTRATUA GAUZATZEA

1.- ARAU OROKORRAK

- 1.1 IZENPÉri zerbitzu ematen dioten, produktuak hornitzen dizkieten eta obrak egiten dizkieten enpresek alta emanda egon beharko dute Jarduera Ekonomikoetan, eta egunera egon beharko dute, halaber, zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoekin ordainketan. Horrez gain, dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean alta emanda izan beharko dituzte beren zerbitzurako langileak, kontratuak irauten duen bitartean. Betebehar horietako edozein ez bada betetzen, Izenpe, S.A.k eskubidea izango du kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsiarazteko.
- 1.2 IZENPÉri produktuak hornitzen dizkieten, zerbitzu ematen dioten edo obrak egiten dizkieten enpresek zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunera daudela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute (jatorrizkoa eta eguneratua), eta hori sei hilabetean behin berritu beharko dute.
- 1.3 Egindako lan guztiak, edozein fasetan daudela ere, Izenpe, S.A.ren jabetzakoak izango dira eta, beraz, Izenpe edozein unetan eskatu ahal izango du prestazioen zatiak entregatzeko, betiere hori bateragarria bada prestatzeko behin betiko programarekin eta horrek eraginik izango ez badu lana behar bezala garatzeko.
- 1.4 Kontratu hau behar bezala gauzatzeko egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo ditu beretzat erabili, ezta besteri eman ere, kontratatutako lanen inguruko datu edo informazioak, horretarako Izenpe, S.A.ren idatzizko baimenik gabe. Beraz, eskura dituen bitarteko guztiak bideratu beharko ditu Izenpe, S.A.rik jasotako informazio eta dokumentazio guztiaren nahiz egindako lanetik lortutako emaitzen izazera konfidentzial eta isilpekoa bermatzera.

Aipatutako lanetatik erator daitezkeen jabetza intelektualeko eta copyright-eko eskubide guztiak Izenpe, S.A.ren jabetzakoak bakarrik izango dira. Beharrezkoa bada, aldeek agiria egin beharko dute, hori bertan publikoki geratzeko jasota Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz Espainiako Estatuko Administrazio Zentraleko edozein erakunde edo erregistroren aurrean.

Nolanahi ere, enpresa esleipenduna izango da betebehar hori ez betetzetik erator daitezkeen kalte-galeren erantzule.
- 1.4 Izenpe, S.A. hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazioetatik salbuetsita egongo da, horiek jabetzarekin edo lehenespeneko eskubideren batekin dutenean zerikusia, baita esleipendunak saldatutako lan informatikoekin edo lan horien gaineko jabetza intelektualak edo industriala urratzearekin zerikusia dutenean ere.
- 1.5 Izenpe, S.A.k onartutako aurrekontua kontratatutako lanak egiteko gehieneko aurrekontuzat joko da. Hornitzailearen ustez, Izenpe, S.A.ri egotz dakizkiokeen kausak direla eta prezioak berrikusi beharko badira, horren berri idatziz eman beharko dio enpresaren zuzendaritzari eta horrek eman beharko du baimena aipatutako berrikuspena egiteko.
- 1.6 Esleipendunak aldezkatu txostenak egongo ditu kontratatutako zerbitzuen egoeraren berri emateko. Agiri horretan adieraziko da lanek zenbateraino egin duten aurrera, adostutako helburuen arabera, eta izan daitezkeen atzerapenen, horien kausen analisiaren eta adostutako neurri zuzentzaileen berri emango da.
- 1.7 Hasiera batean debekatuta egongo dira lagatzea edo azpikontratzea. Dena dela, Izenpe, S.A.k horretarako baimena ematen badu, idatziz egongo du, eta azpikontratista edo lagapen-hartzaile izan litezkeen inguruko edozein agiri, txosten, datu edo berme eskatu ahal izango du, lagatzea edo azpikontratzea gauzatu baino lehen. Behar bezala baimendutako azpikontratistak edo lagapen-hartzaileak azpikontratista nagusiaren betebehar eta eskubide guztiak izango ditu, lagatuko edo subrogatutako kontratuaren zatiari dagokionez. Hasierako esleipendunak bermatuko du Izenpe, S.A.ren aurrean esleipendunaren bidez bere gain hartutako betebehar guztiak betetzen direla, non eta aurkako ez den berriaz adosten, nahiz eta laga edo azpikontratutakoak izan. Beraz, hasierako esleipenduna izango da lagapen-hartzailearen edo azpikontratistaren bermatzaile.
- 1.8 Kontratazioaren xedean ezingo da adakatarik egin Izenpe, S.A.ren baimenik gabe edo ezinbesteko kasuren bat ez bada. Izenpe, S.A.ren baimenarekin egingo diren ordezkapenak hornitzailearen kargurakoak izango dira, egokitzeko aldi bat eskatzen badute. Kasuan kasu baldintza berezietan bane hartutako zigorrak ere aplikagarri izango dira.
- 1.9 Obrak edo proiektuak egiteko kontratatzen denean edo zerbitzu emateko eta hornitzeko kontratuak egiten direnean, kontratatutako enpresak idatziz jakinarazi beharko dio Izenpe, S.A.ri bere erakundeko zein pertsona izendatu duen arduradun gisa, zuzendaritza, antolaketa eta diziplinaren inguruko ahalmenak izateko, Izenpe, S.A.k kontratatutako zerbitzuak emango dituzten enpresako langileei dagokienez.
- 1.10 Obrak edo proiektuak egiteko kontratatzen denean edo zerbitzu emateko kontratuak egiten direnean, kontratatutako enpresak idatziz jakinarazi beharko du bere erakundeko zein pertsona izendatu duen Izenpe, S.A.n zerbitzu emango duten langileei "Kontrata eta azpikontratetarako arriskuak prebenitzeko arau orokorrak" izeneko dokumentuaren berri emateko. Pertsona hori arduratuko da, halaber, langile horiek agiria jaso eta ezagutzen dutela eta kontratua gauzatu bitartean indarrean dagoen arriskuak prebenitzeko araudia beteazko eta langileei beteazteko konpromisoa hartzen duela egiaztatzeaz. Betebehar horietako edozein ez bada betetzen, Izenpe, S.A.k eskubidea izango du kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsiarazteko.
- 1.11 Obrak edo proiektuak egiteko kontratatzen denean edo zerbitzu emateko kontratuak egiten direnean, kontratatutako enpresak egiaztatuko du Izenpe, S.A.k kontratatutako zerbitzuak emango dituzten enpresako langileei dagokien soldatak ordaintzearen inguruko betebeharrak betetzen dituela. Soldatak ez badira ordaintzen edo baldintza orokor hau ez bada betetzen, Izenpe, S.A.k eskubidea izango du kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsiarazteko.
- 1.12 Eskara hau eraginkorra izan dadin, sinatuta bidali beharko du Izenpe, S.A.ara enpresa hornitzaileak, baita baldintza orokor hauetan eskatutako agiri eta ziurtagiriak ere. Izenpek egoki iritzi eta eskatutako dokumentazio osagarria ere bidali beharko du.
- 1.13 Zerbitzu edo proiektu informatikoak kontratatzen direnean, instalazioetatik kanpo eta Izenpe, S.A.ren edo bere bezeroen informazio-sistemarako sarbide zuzenik gabe, kontratatutako enpresak konpromisoa hartuko du jasotako jarraibideen arabera bakarrik erabiltzeko lanerako eman zaizkion datuak eta horiek ez aplikatzeko edo erabiltzeko kontratuan jaso ez diren beste helburu batzuetarako. Horrez gain, datu horiek ezingo dizkio besteri jakinarazi, ezta horiek gordetzeko bada ere. Gainera, kontratatutako enpresak konpromisoa hartuko du zehaztutako segurtasun-neurrien arabera egiteko kontratatutako lanak eta datu pertsonalak dituen edozein euskari suntsitzeko edo Izenpe, S.A.ri itzultzeko, kontratutako harremanak amaitutakoan. Kontratutako enpresak datuak beste xederen baterako erabiltzen baditu, horiek jakinarazten baditu edo kontratuan jasotakoa aintzat hartu gabe erabiltzen baditu, egindako lege-hausteen erantzule izango da, eta Izenpe, S.A.k eskubidea izango du kontratatutako enpresarekin indarrean dituen kontratuak suntsiarazteko.
- 1.14 Laguntza zerbitzu edo proiektu informatikoak kontratatzen badira, eta horiek kontratatutako enpresako langileek Izenpe, S.A.ren edo bere bezeroen instalazio eta sistemetara sartzea badute eskakizun, kontratatutako enpresak egiaztatu beharko du Izenpe, S.A.ara, behar bezala sinatutako kontratuarekin batera, bertan hitzez hitz baieztatuz Izenpe, S.A.n zerbitzu emango duten langile guztiak jaso eta ezagutzen dutela "Informazio-sistemen segurtasun-politikak" izeneko agiria, Izenpe, S.A.ren web-orrian argitaratutakoa (www.izenpe.com), eta agiri hori onartzen dutela eta bertan adierazitako irizpideen arabera jarduteko konpromisoa hartzen dutela.

2.- ESLEIPENDUNARI EGINDAKO ORDAINKETAK

- 2.1 Esleipendunak eskubidea du egiaz egindako lanei dagokien ordainketa jasotzeko, egindako kontratuaren, onartutako zuzenketen eta Izenpe, S.A.k idatziz emandako aginduen arabera.
- 2.2 Enpresa esleipendunak kontratatutako xede den zerbitzua eman dela egiaztatu beharko du, Izenpe, S.A.ri fakturatu aurretik. Zerbitzua eman dela zatiko entregan edo osoen bidez egiaztatuko da, kontratuak zehaztutakoaren arabera, eta honako agiriak aurkeztu beharko dira gutxienez:
 - A) Lanen memoria
 - b) Berriaz egindako eta Izenpe, S.A.k aukeratutako saiakuntza-bankuen deskribapena. Horietan esleipendunaren ordezkari bat egon daiteke, beharrezkoa iritzez gero.
 - c) Material edo/eta zerbitzuan kasuan, enpresa esleipendunak entrega egiaztatu beharko du, entregatzeko albarean baten bidez, Izenpe, S.A.ri fakturatu aurretik.
 - d) Izenpe, S.A.ren ordezkariak sinatutako egindako lanen onespena.
- 2.3 Kontratuaren xedean inguruan jasotako fakturak gehienez ere 90 eguneko epean ordainduko ditu Izenpe, S.A.k, kontratuaren baldintza guztiak egiaztatu ondoren betiere. Fakturak bi aletan aurkeztuko dira, eta gure eskari-zenbakia adierazi beharko da horietan.
- 2.4 Obrak edo proiektuak egin edo zerbitzu eta hornidurak eman ondoren egindako fakturak ordaintzeko, ezinbestekoa izango da fakturretan dena delako hornidura, zerbitzu edo obraren erreferentzia agertzea eta eskariaren orriaren beheko aldean eskatutako agiriak baldintza, betiere fakturatu aurretik aintzat hartuz eta enpresaren ahalordedunak behar bezala sinatu eta zigilatuta.

II KONTRATUA AMAITZEA

3.- LANAK AMAITZEA

- 3.1 Material, lan edo zerbitzuak Izenpe, S.A.ko arduradunek aztertu eta egiaztatuko dituzte. Egoki irizten badiete lanei, onspena emango dute, eta une horretatik hasiko da kontatzen kanpoko edozein lanek izan behar duen urtebeteko bermea, hasierako saiakuntzetan hauteman ez diren akatsak izan daitezkeela aurreikusita.
- 3.2 Justifikatu gabeko arrazoiak direla eta hitzartutako epeak betetzen ez badira, baldintza berezietan adostutako zigorrak ezarriko dira.
- 3.3 Material eta/edo zerbitzu guztiak Izenpe, S.A.ren egoitzan edo berak adierazitako lekuan entregatu beharko dira, bidalketa-gastuetatik salbuetsita eta entregatzeko albaranekin.
- 3.4 Horniduraren edo zerbitzuen iraupena aurrez aldeek zehaztutakoa izango da. Aldi hori bi aldean adostasunarekin luzatu ahal izango da eta aurreabisu epea hilabetekoa izango da, hornidura eta zerbitzuko kontratuen luzapenentarako sektore publikoko kontratuen 30/2007 legean aurreikusitako epean arabera.

III JURISDIKZIO ESKUDUNA

- 4.1 Kontratugileetako batek auziren bat izanez gero, aldeak aurretik adostu dute Gasteizko epaitegietako jurisdikzioaren bide arruntaren mendeko izango direla.

Sinadura. Izen-abizenak.....
Kargua/enpresa: